

Larraintzako
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

IKASTURTEA	2020/21	IRAKASLEA	Gorka Salmerón Murgiondo
MAILA	DBH 4	ARLOA	Balio Etikoak

HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

- Ezberdintasun kulturalak, sozialak, pertsonalak edo trebetasunekoa ERRESPETATZEA.
- Landutako gai ezberdinekin zerikusia duten testuak eta mezuak (ahozkoak, idatzizkoak...) adierazi eta ulertzea, arloko hiztegia eta kontzeptu oinarritzkoak erabiliz.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea arloko gaiei buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa.

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculum auzartzen duena.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. ebaluazioa	1. multzoa. Balioak mundu globalizatuan. 2. multzoa. Garapen iraunkorra.
2. ebaluazioa	3. multzoa. Demokrazia, bizitzeko era bat. 4. Multzoa. Gizartea eta justizia. Giza eskubideak.
3. ebaluazioa	5. multzoa. Etika, zientzia eta teknika.

**Informazio hau ez da behin behinekoa. Ikasturtean zehar aldaketak egon daitezke.*

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK


Lanak / Azterketak ----- % 80
Jarrera / Portaera ----- % 20

-Ebaluazioa gaindituzat emateko, atal guztien batez bestekoa 5a izan behar da. Batez bestekoa egiteko gutxienez 4 atera behar dute atal bakoitzean, bestela zuzenean suspendituta egongo da ebaluazioa.

-Noten borobiltzea: batez-besteko notaren dezimala 0,7 edo altuagoa izanez gero, gorantz borobilduko da, adibidez: 7,7= 8. Borobiltzea 5etik aurrera egingo da.

-Kurtsoko azken kalifikazioa hiru ebaluazioen batez bestekoa izango da.

BERRESKURAPEN SISTEMA



Larraintzako
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

1, 2 edo 3 ebaluazioak gainditu ezean, berreskurapena egingo da ebaluazio bakoitzaren bukaeran edo hurrengoaren hasieran (baita hirugarrenarena ere). Ebaluaketaren berreskurapena, ebaluazio osoarena izango da. Ebaluazioko lanak entregatu ezean, ez da ebaluazioa gaindituko.

Berreskuratzeko lanak edota azterketak egingo dira.

Ohiko eta ez ohiko deialdiak:

Ohiko deialdia: gainditu ez diren ebaluazioak bakarrik berreskuratu beharko dira.

Ez ohiko deialdia: Urte guztia berreskuratu beharko da.

GUTXIENGOAK

- Klasean, eguneroko lana egiteko behar den materiala ekarri eta ongi zaintzea.
- Klasean jarrera egokia eta dinamikoa izatea.
- Informazio iturrien erabilpen zuzena.
- Bakarkako eta taldekako lanetan, parte hartze aktiboa eta jarrera kritikoa izatea.
- Gaiei buruz emandako oinarritzko kontzeptuak ezagutzea.

BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna

BALIABIDEAK

- Fitxak eta artikulua ezberdinak: ikasleen ulermena eta jakintza maila hobetzeko.
- Lanak: lan horiei esker, ikasleek lortutako ezagutza praktikoa eta teorikoen balorazio bat egingo da analisi eta aplikazio maila batean gehien bat.
- Filmak: zenbait gai hobeto ulertzeko eta informazio gehiago jasotzeko.

METODOLOGIA

- Metodologia aktiboa, ikasleek ardura lan dezaten ikaskuntza prozesuan.
- Gai adierazgarriak landu, ikasleen motibazio eta interes mailara egokituak, ikasgaiaren ikuspegi orokor eta integratzaile baten oinarriarekin.

ANIZTASUNA

- Lan taldeak osatzerakoan, aniztasuna kontutan hartzen dugu. Interes ezberdineko taldeak, maila ezberdineko taldeak, sexu ezberdinekoak, etab. izan daitezke.
- Zenbait atal didaktikotan planteatzen ditugu auto-ebaluazioak ere aniztasuna kontutan hartzea suposatzen du.

Oharra: honako programazio labur hau, ikasturtean zehar ematen ahal diren beharretara egokitzeko irekia dago.